# JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

## 2984

AGINDUA, 2008ko apirilaren 16koa, Justizia, Lan eta Gizarte sailburuarena. Honen bidez ematen da argitara familia eta lana bateragarri egiteko diru-laguntzen aurrekontu-zuzkidura.

Jaurlaritzaren Kontseiluak 2001eko uztailaren 3ko bilkuran seme-alabak dituzten Familiei Laguntzeko Erakunde arteko I. Plana onartu zen, zeinaren ondorioz hainbat neurri jarri baitziren abian, lana eta familia bateragarri egin eta gurasotasunak enpleguari jartzen zizkion oztopoak eta lan-bizitzak familia-bizitzari ezartzen dizkion mugak kentze aldera. Horrela bi esparruen arteko bateragarritasuna ahalbidetzen da eta, azken finean, gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna sustatu, bai enplegua lortu eta horri eusteko, bai haien seme-alabak ardura intentsiboz zaindu ahal izateko, horren behar handiena duten garaian. Neurri horien artean aipagarria da 3 urtetik beherakoentzako ikastetxeen sarea eta, Langileen Estatutuak ezarritako esparruaren barruan, seme-alabak zaintzeko eszedentziak edo lanaldi-murrizketak hartzen dituztenentzako diru-laguntzak garatzearen aldeko apustua.

I. Planaren barruan onartu zen, lehenik, uztailaren 16ko 177/2002 Dekretua, lana eta familia bateragarri egiteko neurriak arautzen zituena eta, beranduago, abenduaren 23ko 329/2003 Dekretua, enplegurako laguntzak arautu eta, VI. kapituluan, lana eta familia bateragarri egiteko neurrien gaineko arau berriak ere ematen zituena.

Esperientzia positibo horren ondoren, Eusko Jaurlaritzak, familia babesteko sistema garatzen eta hobetzen jarraitzeko borondate irmoarekin, lana eta familia bateragarri egiteko politikari garrantzi handiagoa eman nahi izan dio eta, horregatik, 2006ko irailaren 26ko bileran Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutako Familiei Laguntzeko Erakundeen arteko II. Planean ildo estrategikotzat jo du. Horretaz gain, inoren laguntza behar duten ahaideak zaintzeko lan-eszedentzia eta lanaldi-murrizketetarako diru-laguntzak emateko programa berri batez hornitu du.

Administrazio Publikoaren diru-laguntzetan bete behar den publikotasunaren printzipioari men eginez, lana eta familia bateragarri egiteko neurriak arautzen dituen uztailaren 17ko 118/2007 Dekretuak —44.4 artikuluan— xedatzen duenez, dekretu horretan aurreikusten diren laguntzak finantzatzeko erabiliko den aurrekontu-zuzkidura edo, hala badagokio, hori eguneratzearen ondoriozko kopurua jakinaraziko du Sail honek urtero, sailburuaren agindu baten bidez.

# DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

## 2984

ORDEN de 16 de abril de 2008, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se da a conocer la dotación presupuestaria de las actuaciones subvencionales para la conciliación de la vida laboral y familiar.

El I Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias con Hijos e Hijas, aprobado por el Consejo de Gobierno en su sesión de 3 de julio de 2001, puso en marcha una serie de medidas de conciliación de la vida laboral y familiar con la finalidad de remover los obstáculos para el empleo derivados de la paternidad o maternidad y las limitaciones que la vida laboral conlleva para la vida familiar, favoreciendo con ello la conciliación entre ambos ámbitos y promoviendo, en última instancia, la igualdad de oportunidades de hombres y mujeres, tanto en el acceso y permanencia en el empleo como en sus posibilidades de dedicación intensiva al cuidado de sus hijos e hijas durante la etapa en que más lo necesitan. Entre dichas medidas destacaban la apuesta por el desarrollo de la red de centros educativos para menores de 3 años y las ayudas económicas para quienes, en el marco establecido por el Estatuto de los Trabajadores, se acogieran a excedencias o reducciones de jornada para el cuidado de sus hijos e hijas.

En el marco del I Plan, se aprobó, primero, el Decreto 177/2002, de 16 de julio, por el que se regulaban las medidas de conciliación de la vida laboral y familiar y, posteriormente, el Decreto 329/2003, de 23 de diciembre, por el que se regulaban las ayudas al empleo, cuyo Capítulo VI reordenaba las medidas de conciliación de la vida laboral y familiar.

Tras esta experiencia positiva, el Gobierno Vasco, firme en su voluntad de seguir desarrollando y mejorando el sistema de protección a la familia, ha querido dar mayor relevancia a su política de conciliación, por lo que en el II Plan Interinstitucional de Apoyo a las Familias, aprobado por el Consejo de Gobierno en su sesión de 26 de septiembre de 2006, le ha conferido entidad de línea estratégica, enriqueciéndola además con un nuevo programa subvencional para excedencias laborales y reducciones de jornada para el cuidado de los familiares dependientes.

En aras a preservar el principio de publicidad que debe orientar la actividad subvencional de la Administración Pública, el Decreto 118/2007, de 17 de julio, por el que se regulan las medidas de conciliación de la vida laboral y familiar prevé, en su artículo 44.4, que este Departamento, mediante Orden de su Consejero, dará a conocer anualmente la dotación presupuestaria correspondiente para la financiación de las ayudas previstas en el presente Decreto, o, en su caso el importe que resulte de su actualización.

Horren ildotik, beharrezkoa da, baita ere, testua EHAAn argitaratzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategineko 49.2 artikuluan agindutakoaren arabera -azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartu zuen lege hori-. Izan ere, testu horrek dio Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko direla jarraitu beharreko arauak, laguntzen eta diru-laguntzen deialdiak eta, hala gertatzen denean, laguntza emateko proposamena egingo duen organoaren osaera; halaber, interesatuentzat garrantzitsuak diren egintzak ere argitaratuko dira, baldin eta modu orokorrean eragiten badiete.

Horregatik, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak 2008ko ekitaldirako onartu zituen abenduaren 28ko 15/2007 Legea onartua izan ondoren, agindu hau EHAAn argitaratuko da, onuradun izan daitezkeenek diru-laguntza horien programen berri izan dezaten bermatzeko.

Beraz, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 49.2. artikuluan eta uztailaren 17ko 118/2007 Dekretuaren 44.4. artikuluan agindutakoari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

*Artikulu bakarra.*– Lana eta familia bateragarri egiteko neurriak arautzen dituen uztailaren 17ko 118/2007 Dekretuko (2007ko ekainaren 27ko EHAA, 144. zenbakia) 1. artikuluan aurreikusten diren diru-laguntzak emateko guztira 28.965.018 euro erabiliko dira gehienez 2008. ekitaldirako, honela xehatuta:

a) 15.563.732 euro seme-alabak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzen duten langileen laguntzetarako.

b) 5.335.430 euro inoren laguntza behar duten ahaideak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzen duten langileen laguntzetarako.

c) 2.400.000 euro seme-alabak edo inoren laguntza behar duten ahaideak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langile-ordezkapenen laguntzetarako.

d) 5.665.856 euro seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatze-laguntzetarako.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Agindu honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa ezar diezaiokete interesdunek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta bihara-

Desde esta perspectiva, también es precisa la publicación de la Orden en el BOPV, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.2 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, aprobado por Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, que establece que se publicarán en dicho Boletín las normas reguladoras, las convocatorias de las ayudas y subvenciones y la composición, en su caso, de los órganos encargados de realizar la propuesta de concesión, y que se publicarán, asimismo, aquellos actos de trascendencia para los interesados y que les afecten de manera general.

Por todo ello, y tras la aprobación de la Ley 15/2007, de 28 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2008, se procede a publicar esta Orden en el BOPV, garantizando con ello el conocimiento de estos programas subvencionales a favor de los posibles beneficiarios.

En su virtud, conforme a lo dispuesto en los artículos 49.2 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, y 44.4 del Decreto 118/2007, de 17 de julio, antes citados,

RESUELVO:

*Artículo único.*– A los efectos de dar cumplimiento a las líneas subvencionales previstas en el artículo 1 del Decreto 118/2007, de 17 de julio, por el que se regulan las medidas de conciliación de la vida laboral y familiar (BOPV n.º 144, de 27 de junio de 2007), se destinará en el ejercicio 2008 un total máximo de 28.965.018 euros, con el siguiente desglose;

a) 15.563.732 euros para ayudas a personas trabajadoras que se acojan a excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos o de hijas.

b) 5.335.430 euros para ayudas a personas trabajadoras que se acojan a excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de familiares en situación de dependencia.

c) 2.400.000 euros destinados a ayudas para sustituir a personas trabajadoras acogidas a una excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos o de hijas o de familiares en situación de dependencia.

d) 5.665.856 euros destinados a ayudas por la contratación de personas trabajadoras para el cuidado de hijos o de hijas menores.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrán los interesados interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en

munetik hasita, hilabeteko epean; edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ezar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan, agindua EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita, bi hilabeteko epean.

*Bigarrena.–* Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita izango ditu ondorioak agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko apirilaren 16a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

*Segunda.–* La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 16 de abril de 2008.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 2985

AGINDUA, 2008ko apirilaren 4koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskadiko Eskola Kontseiluko kideak kentzeko eta izendatzeko dena.

Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legearen 12. artikuluan ezarritakoari jarraituz, bai eta lege hori garatzen duen eta Euskadiko Eskola Kontseilua arautzen duen martxoaren 7ko 55/1989 Dekretuaren 4., 5. eta 8. artikuluetan eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren Funtzionamendu-Arautegia onartzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1990eko apirilaren 4ko Aginduaren 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriaz, eta Ikasle Sindikatuak proposaturik, honako hau

EBATZI DUT:

*Lehenengoa.–* Mikel González Matilla jauna Euskadiko Eskola Kontseiluko kide-postutik kentzea, bera izan baita Euskadiko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikasleen ordezkaria, Ikasle Sindikatuak izendatua.

*Bigarrena.–* Pablo Ortíz Urraca jauna izendatzea Eskola Kontseiluko kide, Ikasle Sindikatuak izendatu baitu Euskadiko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako ikasleen ordezkaria izateko, Mikel González Matilla jaunari agintaldia bukatzeko falta zitzaion eperako.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 2985

ORDEN de 4 de abril de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se dispone el cese y nombramiento de los miembros del Consejo Escolar de Euskadi.

De acuerdo con lo previsto en los artículos 12 de la Ley 13/1988, de 28 de octubre, de Consejos Escolares de Euskadi, 4, 5 y 8 del Decreto 55/1989, de 7 de marzo, por el que se regula el Consejo Escolar de Euskadi, en desarrollo de la anterior Ley, y 15 de la Orden de 4 de abril de 1990, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se aprueba el Reglamento de Funcionamiento del Consejo Escolar de Euskadi, y a propuesta del Sindicato de Estudiantes-Ikasle Sindikatua,

RESUELVO:

*Primero.–* Cesar como miembro del Consejo Escolar de Euskadi a don Mikel González Matilla, como representante del alumnado de enseñanza no universitaria de Euskadi designado por el Sindicato de Estudiantes-Ikasle Sindikatua.

*Segundo.–* Nombrar como miembro del Consejo Escolar de Euskadi a don Pablo Ortíz Urraca, por haber sido elegido por el Sindicato de Estudiantes-Ikasle Sindikatua como representante del alumnado de enseñanza no universitaria de Euskadi, por el tiempo que restaba a don Mikel González Matilla para la conclusión de su mandato.